

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure bezeroekin dugun harremana ahalik eta hurbilena izatea nahi dugu. Gure helburu nagusia menpekotasuna duten pertsonen eta haien familiei laguntzea da.

APPENDENTZIA zerbitzu automatizatuko eta autozerbitzuko aplikazio bat da. Aplikazioa deskargatu ondoren, konfiguratu eta martxan jarri behar da. Horretarako, lehenengo urratsa datuak sartzea da. Aplikazioa deskargatzen duen pertsonak egingo du prozesu hori. Hala ere, prozesu osoan lagunduko dugu. Nahiz eta denda fisikorik edo espazio fisikorik ez izan bezeroei arreta emateko, edozein arazo, zalantza edo zailtasunen aurrean, gure bezeroek telefono zenbaki bat eta e-mail bat izango dute gurekin harremanetan jartzeko, 24x7, 365 egun. Beraz, gure zerbitzuak laguntza pertsonalizatua eskainiko du, gure bezeroak orientatuz eta aplikazioa erabiltzen eta kudeatzen lagunduz. Deien eta e-mailen zerbitzuak doakoak izango dira.

Bestalde, gure bezeroak integratu nahi ditugu eta, horretarako, lehen aipatutako helbide elektronikoa izango dute eskuragarri. Horren bidez, "feedback" on bat lortuko dugu, iradokizunak eta hobekuntzak proposatuz, haien esperientzia pertsonala oinarritzat hartuta. Halaber, gure bezeroak fidelizatuko ditugu, kuotetan hobariak eskainiz haien balorazio positiboengatik, bai sare sozialen bidez bai etorkizuneko bezeroei egindako gomendioen bidez. Azken finean, gure helburua da haiei laguntzea eta haiek APPENDENTZIA proiektuaren parte sentitzea. Hori da gure poztasunik handiena.